

## **ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 1719/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko azaroaren 15koa, «Gazteak ekinean» programa ezartzen duena 2007-2013 aldirako.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Decisión N° 1719/2006/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de noviembre de 2006, por la que se establece el programa “La juventud en acción” para el periodo 2007-2013*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 327 de 24/11/2006)

1719/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko azaroaren 15ekoa,

«Gazteak ekinean» programa ezartzen duena 2007-2013 aldirako.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak eta, bereziki, Tratatuaren 149. artikulua 4. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute<sup>(1)</sup>,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute<sup>(2)</sup>,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki<sup>(3)</sup>,

hauek kontuan hartuta:

1) Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak (aurrerantzean, «Tratatuak») Batasuneko herritartasuna ezartzen du eta xedatzen du Erkidegoak hezkuntzaren, lanbide-heziketaren eta gazteriaren alorrean egin beharreko lanaren helburuak izan behar duela, besteak beste, gazteen eta gizarte-hezkuntzetako eragileen arteko trukeek gora egin dezaten bultzatzea eta kalitateko hezkuntza ematea.

(2) Hauek dira Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren oinarriko printzipioak: askatasuna, demokrazia eta oinarriko giza eskubideen eta askatasunen errespetua, baita gizon-emakumeen arteko berdintasuna eta diskriminaziorik eza ere. Gazteen herritartasun aktiboa sustatu behar da, balio horiek gauzatzen laguntzeko.

(3) 1031/2000/EE Erabakiaren bitartez<sup>(4)</sup>, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak «Gazteria» Erkidegoko ekintza-programa ezarri zuten. Komeni da elkarlanean eta lanean jarraitzea alor honetan, eta Erkidegoaren barneko lankidetzaren eta lana sendotzea, programari esker lortutako esperientzia baliatuz.

(4) 90/2004/EE Erabakiaren bitartez<sup>(5)</sup>, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Erkidegoko ekintza-

programa bat ezarri zuten, Europa osoan gazteriaren alorrean jarduten duten erakundeak sustatzeko.

(5) 2000ko martxoaren 23an eta 24an, Europako Kontseiluak ohiz kanpoko bilera egin zuen, Lisboan, eta helburu estrategiko bat ezarri zion Europar Batasunari; helburua lortzeko, besteak beste, enplegu-politika aktiboa behar da, etengabeko ikaskuntzari garrantzi handiagoa emateko. Gainera, 2001eko ekainaren 15ean eta 16an, Europako Kontseiluak garapen iraunkorrari buruzko estrategia onartu zuen, Goteborgen.

(6) Kontseilu Europarraren presidentearen 2001eko abenduaren 14 eta 15eko ondorioei erantsitako Laekengo Adierazpenak nabarmentzen duenez, EBk bere gain hartu beharreko funtsezko erronketako bat da bide bat aurkitzea herritarrak (lehenik eta behin, gazteak) Europa eratzeko proiektura eta Europako erakundeetara erakartzeko.

(7) 2001eko azaroaren 21ean, Batzordeak «Beste bultzada bat Europako gazteriari» izenburuko liburu zuria onartu zuen, lankidetzaren esparru bat proposatzeko gazteriaren alorrean. Elkarlan-esparru berria sortzearen helburua da, nagusiki, partaidetza, informazioa eta gazteek boluntario-lanak egin ditzaten bultzatzea eta gazteria hobeto ezagutzea. 2002ko maiatzaren 14ko Ebazpenaren bidez<sup>(6)</sup>, Europako Parlamentuak proposamena berretsi zuen.

(8) 2002ko ekainaren 27an, Kontseilua eta Kontseilua osatzen duten estatu kideetako gobernuen ordezkariak bildu ziren, eta Ebazpena eman zuten<sup>(7)</sup>. Hain zuzen ere, Ebazpenak lau lehentasun (partaidetza, informazioa, gazteek boluntario-lanak egin ditzaten bultzatzea eta gazteria hobeto ulertu eta ezagutzea) koordinatzeko metodo ireki bat xedatzen du, eta beharrezkoa da orientabideok kontuan hartzea «Gazteak ekinean» programa (aurrerantzean, «Programa») aplikatzeko.

(9) 2003ko maiatzaren 6an, Kontseiluak hainbat ondorio atera zituen<sup>(8)</sup>, eta Erkidegoak gazteentzat berriaz sortutako tresnei eutsi eta haiek garatu beharra nabarmendu zuen, oinarrikoak baitira estatu kideen arteko elkarlana areagotzeko gazteriaren alorrean. Gainera, azpimarratu zuen tresnon lehentasunek eta helburuek bat etorri beharko luketela gazteriaren alorreko Europako lankidetzaren esparruarekin.

(10) 2005eko martxoaren 22an eta 23an, Europako Kontseiluak udaberriko bilera egin zuen, eta Gazteentzako Europako Hitzarmena onartu zuen,

<sup>1</sup> C 234 EO, 2005/09/22koa, 46. or.

<sup>2</sup> C 71 EO, 2005/03/22koa, 34. or.

<sup>3</sup> Europako Parlamentuaren 2005eko urriaren 25eko Irizpena (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), Kontseiluaren 2006ko uztailaren 24ko Jarrera Bateratua (C 251 E EO, 2006/10/17koa, 20. or.) eta Europako Parlamentuaren 2006ko urriaren 25eko Jarrera (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

<sup>4</sup> L 117 EO, 2000/05/18koa, 1. or. Azken buruan Kontseiluaren 885/2004/EE Erregelamendua (L 168 EO 2008/05/01ekoa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

<sup>5</sup> L 138 EO, 2004/04/30ekoa, 24. or.

<sup>6</sup> C 180 E EO, 2003/07/31koa, 145. or.

<sup>7</sup> C 168 EO, 2002/07/13koa, 2. or.

<sup>8</sup> C 115 EO, 2003/05/15ekoa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Lisboan hazkunderari eta enpleguari buruz finkatutako helburuak lortzen laguntzeko. Hitzarmenak hiru esparru lantzen ditu: batetik, enplegua, gizarteratzea eta gizartean mailaz gora egitea; bestetik, hezkuntza, prestakuntza eta mugikortasuna; eta, azkenik, lana eta familia bateratzea.

(11) Erkidegoak kalitateko hezkuntza eta prestakuntza ematen laguntzeko lan egin du, eta gizon-emakumeen arteko desberdintasunak desagerraraztea eta berdintasuna sustatzea izan behar du helburu, Tratatuaren 3. artikulua 2. paragrafoak xedatzen duenez.

(12) Ezgaitasunen bat duten pertsonen berariazko beharrei erantzun behar zaie.

(13) Herritartasun aktiboa sustatu behar da eta, horretarako, lan-ildoak aplikatzean, nolanhiko bereizkeriaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzea bultzatu behar da; tartean, borrokatu behar da sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi dituen diskriminazioaren kontra, Tratatuaren 13. artikulua 1. paragrafoak xedatzen duenez.

(14) Europako Merkataritza Askearen Elkarteko (EFTAko) herrialdeek eta Europar Batasunaren kide izateko hautagai diren herrialdeek, baldin eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioaren parte badira, Erkidegoko programetan parte har dezakete, herrialdeekin egiten diren hitzarmenei jarraiki.

(15) 2003ko ekainaren 19an eta 20an, Europako Kontseilua Salonikan bildu zen, eta «Salonikako programa Mendebaldeko Balkanentzat: Europa bateratzen aurrera egitea» dokumentua onartu zuen. Haren arabera, Egonkortze eta Elkartze Prozesuan parte hartzen duten herrialdeek ere parte har dezakete Erkidegoko programetan, Erkidegoak eta herrialdeekin sinatzen dituzten esparru-hitzarmenei jarraiki.

(16) Xedapenak prestatu behar dira Suitzak ere Programan parte hartzeko.

(17) 1995ean, Europako eta Mediterraneoko Biltzarra egin zuten, eta Bartzelonako Adierazpena onartu zuten. Haren arabera, gazteen arteko trukeek balio behar dute etorkizuneko belaunaldiak prestatzeko, oinarritzko giza eskubideen eta askatasunen printzipioak errespetatuz, Europako eta Mediterraneoko kideen artean lankidetzat estuagoa izateko.

(18) 2003ko ekainaren 16an, Kontseiluak hainbat ondorio atera zituen eta, Batzordearen «Europa zabalagoa. Inguruko herrialdeekiko harremana: Ekialdeko Europako eta Europaz hegoaldeko herrialdeekiko harremanen esparru berria» txostenean oinarrituz, hau finkatu zuen Erkidegoaren lanaren ardaztat, besteak beste: inguruko herrialdeekiko kultura-lankidetzat, elkar-ulertzea eta elkarlana areagotzea hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorrean.

(19) «Gazteria» programa erdibidean ebaluatzeko txostenek eta Erkidegoak hezkuntza, prestakuntza eta gazteria arloan etorkizunean egin beharreko lanari buruzko galdeketa publikoak adierazten dute premia larria (eta, zenbaitetan, gero eta handiagoa) dagoela Europar elkarlan- eta mugikortasun-jardueretan jarraitzeko, eta prozedurek erraz, malgu eta erabilgarriagoak izan behar dutela.

(20) Finantzen kudeaketa onean oinarritutako printzipioaren arabera, Programa aplikatzea errazagoa izan daiteke Programa ordainketa bakarra eginez finantzatzuz gero, bai Programan parte hartzen dutenei laguntzeari eta bai, Programa administratzeko, Erkidegoak herrialde bakoitzean sortzen diren egiturak babesteari dagokionez.

(21) Aldizka, Programaren jarraipena eta ebaluazioa egin behar da, Batzordearen eta estatu kideen artean, egokitzapenak egite aldera, neurriak hartzeko lehentasunei dagokienez bereziki. Jarraipena eta ebaluazioa helburu eta adierazle neurgarri eta egokien bidez egin behar da, besteak beste.

(22) Programaren oinarritzko egintza behar bezain malgu adierazi behar da, ekintzak aldatu eta beharren bilakaerari erantzun ahal izateko 2007-2013 aldian. Hau da, xedapenek ez dute izan behar aurreko programetakoek bezain zehatzak. Hori dela-eta, komeni da Erabakia ekintzen definizio orokorrak eta administrazio eta finantza arloko oinarritzko xedapen osagarriak ematera mugatzea.

(23) Komeni da Programa behar bezala osatzea, hura kudeatzeko urte askotarako xedapenen jarraipenari dagokionez bereziki, hala nola, laguntza teknikoaren eta administratiboaren finantzazioari dagokionez. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, beharrezkoa izanez gero, laguntza teknikoak eta administratiboak 2013 bukatzerako amaitzen ez diren ekintzak kudeatzea ziurtatuko du.

(24) Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-erregelamendua onartzen duen 2002ko ekainaren 25eko Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamendua<sup>(1)</sup> (EE, Euratom) eta hura garatzeko arauak aplikatzeko, eta baita testuotako salbuespenak (onuradunen eta ekintzen ezaugarriak direla-eta ezarritakoak) aplikatzeko ere, modu bereziak aurreikusi behar dira.

(25) Behar bezalako neurriak hartu behar dira iruzurrei eta irregulartasunei aurrea hartzeko eta galtzen diren (ordaindu behar izanik gabe ordaintzen diren edo oker erabiltzen diren) funtsak berreskuratzeko.

(26) Erabakiak finantza-hornidura jakin bat ezartzen du Programak irauten duen aldi osorako. Hura izango da erreferentzia pribilegiatua Aurrekontu Agintaritzarentzat urteko aurrekontu-prozeduraren esparruan, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzko Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren

<sup>1</sup> L 248 EO, 2002/09/16koa, 1. or.

# *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

17ko instituzio arteko Akordioaren 37. atalari jarraiki<sup>(1)</sup>.

(27) Kontuan izan behar da estatu kideek ezin dituztela lortu behar den moduan Erabakiaren helburuak, alde anitzetako elkarrekin, nazioez gaindiko mugikortasun-neurriak eta informazioa Europa osoan zabaltzea behar direlako eta, beraz, proposatutako ekintzak nazioez gaindikoak eta alde anitzetakoak direlako. Hori dela-eta, helburuak hobeto lor ditzake Erkidegoak eta, horretarako, neurriak har ditzake, Tratatuaren 5. artikulua ezartzen duen subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horrek berak adierazten duen proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erabakiak ez du xedatzen behar baino gehiago helburuok lortzeko.

(28) Bidezkoa da Erabaki hau aplikatzeko beharrezko neurriak onartzea Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren arabera; 1999/468/EE Erabakia 1999ko ekainaren 28koa da, eta Batzordeari esleituriko gauzatze-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu<sup>(2)</sup>.

(29) Bidezkoa da 2006ko abenduaren 31 baino lehen abian jartzen diren ekintzen jarraipena egiteko aldi baterako neurriak onartzea 1031/2000/EE Erabakiaren eta 790/2004/EE Erabakiaren arabera.

ERABAKI DUTE:

## **1. artikulua**

### **Programa ezartzea**

1. Erabakiaren bidez, «Gazteak ekinean» Erkidegoko ekintza-programa (aurrerantzean, «Programa») ezarri da; Programaren helburua da lankidetzaren sustatzea gazteriararen alorrean Europar Batasunean.

2. Programa 2007ko urtarilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean aplikatuko da.

## **2. artikulua**

### **Programaren helburu orokorrak**

1. Hauek dira Programaren helburu orokorrak:

- Oro har, gazteen herritartasun aktiboa eta, bereziki, gazteen europar herritartasuna sustatzea.
- Gazteen elkartasuna sendotu eta tolerantzia sustatzea, EBko gizartearen kohesioa indartzeko batez ere.

c) Herrialde ezberdinetako gazteek elkar uler dezaten bideratzea.

d) Gazteen jarduerak babesteko sistemen kalitatea hobetzen eta gazteriararen alorreko gizarte zibileko antolakundearen ahalmena handitzen laguntzea.

e) Europako lankidetzari bide ematea gazteriararen alorrean.

2. Programaren helburu orokorrekin Erkidegoaren lanaren beste esparru batzuetan lortu nahi diren helburuak osatzen dituzte; bereziki, etengabeko prestakuntzaren esparruko helburuak (tartean, lanbide heziketaren eta ikaskuntza ez-formalaren eta informalararen esparrukoak) osatzen dituzte, baina baita beste esparru batzuetakoak ere (hala nola, kultura, kirol eta enplegu arlokoak).

3. Programaren helburu orokorrekin EBko politikak garatzen lagunduko dute, batez ere, Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna onartzeari, gizartearen kohesioa eta sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi duen nolanhiko diskriminazioaren kontra borrokatzea bultzatzeari eta garapen iraunkorrari dagokienez.

## **3. artikulua**

### **Programaren helburu espezifikoak**

Hauek dira Programaren helburu espezifikoak:

- Oro har, gazteen herritartasun aktiboa eta, bereziki, gazteen europar herritartasuna sustatzeko helburu orokorraren barruan,
  - gazteei eta gazte-erakundeei, oro har, gizartearen eta, bereziki, EBren garapenean parte hartzeko aukera ematea;
  - gazteei EBko kide sentiaraztea;
  - gazteek Europako bizitza demokratikoan parte har dezaten bultzatzea;
  - gazteen mugikortasuna areagotzea Europan;
  - kultura arteko ikaskuntza sustatzea gazteen artean;
  - gazteen artean EBren oinarritzko balioak sustatzea eta, bereziki, giza duintasunaren errespetua, berdintasuna, giza eskubideak, tolerantzia eta diskriminaziorik eza sustatzea.
  - ekimenari, enpresa-espirtuari eta sormenari bide ematea;

<sup>1</sup> C 139 EO, 2006/06/14koa, 1. or.

<sup>2</sup> L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.) aldatutako erabakia.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- h) aukera gutxi dituzten gazteek (tartean, ezgaitasunen bat dutenek) Programan parte hartzeari bide ematea;
  - i) gizon-emakumeen arteko berdintasuna errespetatu dadin zaintzea Programa martxan den bitartean eta printzipio hori bultzatzea ekintzak egiterakoan;
  - j) eta Europako esparruan ikasteko aukera ez-formalak eta informalak ematea eta herritartasun aktiboa lantzeko aukera berritzaileak sortzea;
- 2) EBko gizartearen kohesioa indartzeko batez ere, gazteen elkartasuna sendotu eta tolerantzia sustatzeko helburu orokorraren barruan,
- a) Europan eta nazioartean boluntario-lanak eginez, norik bere konpromisoak adierazteko aukera ematea gazteei;
  - b) eta EBko herritarren artean elkartasuna sustatzeko ekintzei buruzko interesa piztea gazteen artean.
- 3) Herrialde ezberdinetako gazteek elkar ulertzen dezaten bideratzeko helburu orokorraren barruan,
- a. trukea eta kultura arteko elkarriketa sustatzea Europako eta inguruko herrialdeetako gazteen artean;
  - b. gazteei laguntzeko egituren kalitatea hobetzen laguntzea eta gazteriaren alorrean eta gazte-erakundeetan lan egiten dutenen lana sendotzea herrialdeotan;
  - c. eta gaikako lankidetzaproiektuak gauzatzeko beste herrialde batzuekin eta gazteek eta gazteriaren alorrean eta gazte-erakundeetan lan egiten dutenek proiektuotan parte hartzea.
- 4) Gazteen jarduerak babesteko sistemen kalitatea hobetzen eta gazteriaren alorrean gizarte zibileko antolakundeen ahalmena handitzen laguntzeko helburu orokorraren barruan,
- a) antolakundeak sarean konektatzen laguntzea;
  - b) gazteriaren alorrean eta gazte-erakundeetan lan egiten dutenen prestakuntza eta haien arteko lankidetzaren bultzatzea;
  - c) gazteen aldeko jarduerak berritzaileak sortu daitezkeen bultzatzea;
  - d) gazteen informazioa hobetzen laguntzea eta arreta berezia jartzea ezgaitasunen bat duten gazteek informazioa eskuratzeko;
- e) eskualdeetako eta tokiko erakundeen gazteriari buruzko epe luzeko proiektuak eta ekimenak babestea;
  - f) gazteen ikaskuntza ez-formala eta gazteek Programan parte hartuz bereganatzen dituzten ezagutzak onets daitezkeen bideratzea;
  - g) eta jardunbide egokiak jakinaraztea elkarri.
- 5) Eskualdeak eta tokian tokikoa kontuan hartuz, gazteriaren alorrean Europako lankidetzari bide emateko helburu orokorraren barruan,
- a) jardunbide egokiak ezagutaraz daitezkeen eta administrazioak eta arduradun politikoak maila guztietan elkarlanean aritu daitezkeen bultzatzea;
  - b) elkarriketa egituratua sustatzea arduradun politikoaren eta gazteen artean;
  - c) gazteak hobeto ezagutu eta ulertzea;
  - d) eta lankidetzaren sustatzea herrialde bakoitzeko eta nazioarteko boluntarioen artean.

#### 4. artikulua

##### Ekintzak

Programaren helburu orokorrak eta espezifikoak lortzeko, ekintza hauek izango dira bitartekoak; eranskinak zehatz-mehatz azaltzen ditu guztiak.

#### 1) Gazteak Europarekin

Hauek sustatzea da ekintza honen helburua:

- Gazteen trukeak, mugikortasuna sustatzeko.
- Gazteen ekimenak eta gazteek bizitza demokratikoan parte hartzeko proiektuak eta jarduerak, haien herritartasuna eta elkar-ulertzea garatzeko.

#### 2) Europako Boluntario Zerbitzua

Ekintza honen helburua da gazteek askotariko boluntario-lanetan parte har dezaten bultzatzea, EB barnean eta EBtik kanpo.

#### 3) Gazteak munduan

Hauek sustatzea da ekintza honen helburua:

- 5. artikulua 2. paragrafoari jarraiki, kide-tutako herrialdeetako proiektuak, bereziki, gazteen eta gazteriaren alorrean

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

eta gazte-erakundeetan lan egiten dutenen arteko trukeak.

- Gazteek elkar ulertzea eta elkartasun eta tolerantzia sendotzen duten proiektuak eta herrialdeotako gazteriaren eta gizarte zibilaren alorreko lankidetzak sendotzen dutenak.

#### 4) Gazteei laguntzeko sistemak

Ekintza honen helburua da Europan gazteriaren alorrean lan egiten duten erakundeei laguntzea honako esparru hauetan: gazteriaren alorreko gobernuz kanpoko erakundeen funtzionamendua, GKEak sarean konektatzea, proiektuak gauzatzeko dituzten pertsonen aholku ematea, gazteriaren alorrean eta gazte-erakundeetan lan egiten dutenen trukearen eta prestakuntzaren bitartez eta haiek sarean antolatuz kalitatea ziurtatzea, ekintzen berrikuntza eta kalitatea sustatzea, gazteen informazioa, Programaren helburuak lortzeko beharrezko egiturak eta jarduerak sortzea, eta baita tokiko eta eskualdeetako korporazioekiko elkarteak sustatzea ere.

#### 5) Europako lankidetzari bide ematea gazteriaren alorrean

Hauek dira ekintza honen helburuak:

- Gazteriaren alorreko eragileen artean elkarrizketa egituratua antolatzea; bereziki, gazteen beraien, gazteriaren alorrean eta gazte-erakundeetan lan egiten dutenen eta arduradun politikoen artean.
- Gazteek haien interesa pizten duten gizarte-, kultura- eta politika-gaiei buruzko mintegiak egin ditzaten bultzatzea.
- Lankidetzak politikoa garatzen laguntzea gazteriaren alorrean.
- Gazteak hobeto ulertzeko beharrezko sareak ezar daitezkeen bideratzea.

### *5. artikulua*

#### **Programan parte hartzea**

1. Programan herrialde hauek har dezakete parte (aurrerantzean, «herrialde parte-hartzaileak»):

- a) Estatu kideak.
- b) Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatzen duten Europako Merkataritza Askearen Elkarteko estatuek, Akordioak xedatzen duenari jarraiki.

c) Aurrez atxikitzeko estrategian parte hartzen duten herrialde hautagaiek, herrialdeok Erkidegoko programetan parte hartzeko sinatzen diren esparru-hitzarmenek ezartzen dituzten printzipio orokorrei eta programetan parte hartzeko baldintza eta modu orokorrei jarraiki.

d) Mendebaldeko Balkanetako herrialdeek, haiek Erkidegoko programetan parte hartzea xedatzen duten esparru-hitzarmenek ezartzen dituzten moduei jarraiki.

e) Suitzak, aldebiko hitzarmena egiteko baldintzapean.

2. Eranskinen 2. eta 3. puntuek aipatzen dituzten ekintzetan Erkidegoarekin gazteriaren alorrekin zerikusia duten hitzarmenak sinatzen dituzten beste herrialdeak ere aritu daitezke (aurrerantzean, «herrialde kidetuak»).

Herrialde kidetuekin elkarlanean aritzeko oinarria haien kreditu gehigarriak izango dira, eta kredituak haiekin hitzartzen diren prozeduren arabera kitatuko dira.

### *6. artikulua*

#### **Programan sartzea**

1. Programaren helburua da irabazi-asmorik gabeko proiektuak sustatzea gazteen, gazte taldeen, gazteriaren alorrean eta gazte-erakundeetan lan egiten dutenen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta antolakundeen alde, eta baita, behar bezala arrazoituz gero, gazteriaren alorrean aritzen diren beste eragileen alde.

2. Ekintzak abian jartzeko eranskinak zer modu ezartzen dituen gorabehera, programa 15 eta 28 urte arteko gazteentzat da, baina ekintza batzuetan 13 eta 30 urte bitarteko gazteek parte har dezakete.

3. Onuradunek Programan parte hartzen duen herrialde batean bizi behar dute, legez, edo, ekintza nolakoa den, herrialde kidetu batean.

4. Gazte guztiek har dezakete parte Programako ekintzetan, inolako diskriminaziorik gabe, eranskinen xedapenak errespetatzen badira betiere. Batzordeak eta herrialde parte-hartzaileek zaindu behar dute aparteko ahalegina egin dadin, hezkuntza, gizarte, ekonomia edo kultura arloko arazoak edo arrazoi fisikoak edo psikikoak direla medio edo bakartuta bizi direla-eta, Programan parte hartzeko zailtasun gehien duten gazteen alde.

5. Herrialde parte-hartzaileek saiatu behar dute neurri egokiak hartzen, Programan parte hartzen dutenek osasun-laguntza eskuratzetik izan dezaten, Erkidegoko legediak xedatzen duenari jarraiki. Jatorrizko herrialdeak saiatu behar du neurri egokiak hartzen, Europako Boluntario Zerbitzuko parte-hartzaileek gizarte-laguntzetarako eskubideei euts diezaieten. Halaber, herrialde parte-hartzaileek saiatu

behar dute neurri egokiak hartzen, Tratatuari jarraiki, Programan parte hartzea galarazten duten legezko oztopoak eta oztopo administratiboak ken daitezzen.

*7. artikulua*

**Nazioarteko lankidetzak**

Gazteriaren alorrean eskumena duten nazioarteko erakundeek ere parte har dezakete programan, elkarlanean; bereziki, Europako Kontseiluak.

*8. artikulua*

**Programa aplikatzea**

1. Batzordeak ziurtatzen du Programa osatzen duten ekintzak eranskinari jarraiki aplikatzea.

2. Batzordeak eta herrialde parte-hartzaileek neurri egokiak hartu behar dituzte, beharrezko azpiegiturak prestatzeko Europan, herrialde bakoitzean eta eskualde bakoitzean edo tokian-tokian eta, hartara, Programaren helburuak lortu eta xedatzen dituen ekintzetatik ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

3. Batzordeak eta herrialde parte-hartzaileek neurri egokiak hartu behar dituzte, gazteen ikaskuntza ez-formala eta informala onestea bultzatzeko eta, hartara, onuradunek lortzen duten esperientzia onetsi eta gazteek eta gazteriaren alorrean eta gazte-erakundeetan lan egiten dutenek Programaren esparruko ekintza batean zuzenean parte hartzen dutela egiaztatzeko; esate baterako, egiaztagiria eta ziurtagiriak sor ditzakete, eta herrialde bakoitzeko berezitasunak kontuan hartu behar dituzte betiere. Helburu hau lortzeko, Erkidegoko beste ekintza batzuk ere erabil daitezke aldi berean, Erabakiaren 11. artikuluari jarraiki.

4. Batzordeak, herrialde parte-hartzaileekin elkarlanean, Erkidegoaren finantza-interesak behar bezala babestea ziurtatzen du eta, horretarako, disuasio-neurri eraginkor eta proportzionalak, administrazioaren kontrolak eta zigorrak ezarriko ditu.

5. Batzordeak eta herrialde parte-hartzaileek zaindu behar dute Programak babesten dituen ekintzak behar bezala ezagutaraz eta iragar daitezzen.

6. Herrialde parte-hartzaileek

a) beharrezko neurriak hartu behar dituzte, ziurtatzeko Programak behar bezala funtzionatzen duela herrialde bakoitzean, eta, horretarako, ziurtatu behar dute gazteriaren alorrean interesa duten alderdi guztiek hartzen dutela parte, herrialdean herrialdeko jardunbideei jarraiki;

b) agentzia nazionalak sortu edo izendatu behar dituzte, herrialde bakoitzean Programa osatzen duten ekintzak kudeatzeko,

1605/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 54. artikulua 2. paragrafoaren c) idatz-zatiak xedatzen duenari jarraiki, eta, horretarako, irizpide hauek aplikatu behar dituzte:

i) sortu edo izendatzen den agentzia nazionalak nortasun juridikoa izan behar du, edo nortasun juridikoa duen erakunde baten mendekoa izan behar du, eta dena delako herrialde parte-hartzailearen zuzenbideak arautu behar du; bestalde, ministerioak ezin dira izendatu agentzia nazionaltzat;

ii) sortu edo izendatzen den erakundeak langile nahikoa izan behar ditu, behar bezala gaitutakoak nazioarteko elkarlanean aritzeko, eta azpiegitura eta esparru administratibo egokiak izan behar ditu, inolako interes-gatazkarik ez izateko;

iii) funtsak kudeatzeko arauak eta Erkidego osoan kontratu bidez ezarritako baldintzak betetzeko moduan egon behar dute;

iv) eta finantza berme nahikoa (ahal dela, agintari publiko batengandik sortuak) eman behar dituzte eta administratu behar dituzten Erkidegoko funts guztiak kudeatzeko ahalmena izan behar dute;

c) agentzia nazionalak, b) idatz-zatian aipatutakoek, proiektuak gauzatzeko transferitzen zaizkien kredituak behar bezala kudea ditzaten arduratu behar dira eta, bereziki, hauek errespetatu ditzaten: gardentasun-printzipioa, tratatu berdintasunaren aldeko printzipioa eta Erkidegoko beste funts batzuen bidez ere ez finantzatzeko printzipioa, baita onuradunek zor duten dirua berreskuratzeko betebeharra ere;

d) eta beharrezko neurriak hartu behar dituzte, b) idatz-zatiak aipatzen dituen agentzia nazionalen kontuak behar bezala ikuskatzeko eta haiek finantza aldetik kontrolatzeko; bereziki, hau egin behar dute:

i) agentzia nazionala lanean hasi aurretik, beharrezko bermeak eman behar dizkiote Batzordeari, aplikatu beharreko prozedurak, kontrol-sistemak, kontabilitate-sistemak eta kontratuak esleitu eta diru-laguntzak emateko prozedurak erabiltzen dituela, egokiak direla eta, finantza-kudeaketa egokiaren arabera arauak jarraiki, behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko;

- ii) urte bakoitzeko ekitaldiaren amaieran, bermeak eman behar dizkiote Batzordeari, agentzia nazionalen finantza-sistemak eta finantza-prozedurak fidagarriak direla eta kontuak zehazki egin dituztela ziurtatzeko;
  - iii) eta funtsak ez berreskuratzearen erantzule izan behar dute, b) idatz-zatiak aipatzen dituen agentzia nazionalen irregulartasunen, zabarkeriaren edo iruzurraren ondorio bada eta horrek Batzordeak agentzia nazionalen funtsak erreklamatzeko badakar.
  - d) Eranskinen 4.2. puntuak aipatzen duen hitzarmena ikuskatzea, urteko lan-egitasmoa eta Europako Gazteen Foroa barne.
  - e) Programa ebaluatzeako moduak.
  - f) Gazteek ekintzetan parte hartzen dutela egiaztatzeako moduak;
  - g) Programa osatzen duten ekintzak egokitzeko modua, 8. artikularen 7. paragrafoari jarraiki.
2. Erabakia aplikatzeko beharrezko neurriak 9. artikularen 3. paragrafoak aipatzen duen prozeduraren arabera hartu behar dira gainerakoan.

#### *11. artikulua*

##### **Erkidegoko beste ekintza batzuekiko osagarritasuna**

1. Batzordeak ziurtatu behar du Programa eta Erkidegoak egiten duen lanaren beste esparru batzuk osagarriak direla, bereziki, hezkuntza, lanbide-heziketa, kultura, herritartasuna, kirola, hizkuntza, enplegua, osasuna, ikerkuntza, enpresa, EBren kanpo-jarduna, gizarteratzea, genero-berdintasuna eta diskriminazioen aurkako borroka.
2. Bateragarritasun arazorik ez badago, Programaren baliabideak Erkidegoko beste tresna batzuen baliabideekin batera erabil daitezke, bai Programaren eta bai beste tresnen helburuak lortzeko ekintzak egiteko.
3. Batzordeak eta estatu kideek saiatu behar dute Erkidegoaren lanaren beste esparru batzuetako helburuak lortzen laguntzen duten Programako ekintzak nabarmentzen, bereziki, hezkuntzaren, lanbide-heziketaren, kulturaren, kirolaren, hizkuntzaren, gizarteratzearen, genero-berdintasunaren eta diskriminazioen aurkako borrokaren alorreko helburuak lortzen laguntzen dutenak.

#### *12. artikulua*

##### **Herrialde bakoitzeko politikekiko eta tresnekiko osagarritasuna**

1. Herrialde parte-hartzaileek baimena eska diezaioke Batzordeari, 4. artikulua aipatzen dituenen antzeko ekintzei Europako etiketa jartzeko, ekintza horiek herrialde osokoak, eskualdekoak edo tokikoak izan.
2. Herrialde parte-hartzaileek funts nazionalak utz ditzakete onuradunen esku. Funtsak Programaren arauari jarraiki administratu behar dira eta, horretarako, Programaren egitura deszentralizatuak erabili behar dira, betiere, egituren finantzazio osagarriaren zati proportzionala ordaintzea bermatzen badute.

7. 10. artikularen 1. paragrafoak xedatzen duen prozeduraren esparruan, Batzordeak orientabideak ezar ditzake eranskinak aipatzen duen ekintza bakoitza gauzatzeko, Programa Europan gazteriaren alorrean izan beharreko lankidetzaren lehentasunen bilakaerara egokitzeko.

#### *9. artikulua*

##### **Komitea**

1. Batzordeak komite baten laguntza izango du.
2. Atal hau aipatzen dutenean, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikulua aplikatu behar dira.  
1999/468/EE Erabakiaren 4. artikularen 3. paragrafoak aipatzen duen epea bi hilabetekoa da.
3. Atal hau aipatzen dutenean, 1999/368/EE Erabakiaren 3. eta 7. artikulua aplikatu behar dira, 8. artikuluan xedaturikoa betez.
4. Komiteak barne-araudia onartu behar du.

#### *10. artikulua*

##### **Erabakia betearazteko neurriak**

1. Erabakia aplikatzeko beharrezko neurriak 9. artikularen 2. paragrafoan aipatzen den prozeduraren arabera hartu behar dira hauei dagokienez:
  - a) Programa aplikatzeko moduak eta, tartean, urteko lan-egitasmoa.
  - b) Programa osatzen duten ekintzen arteko oreka orokorra.
  - c) Finantza arloan, deszentralizatuta administratu behar diren ekintzak gauzatzeko funtsak estatu kideen artean banatzeko aplikatu beharreko irizpideak: gazteen kopurua, NPG, herrialdeen arteko distantzia...



*13. artikulua*

**Finantza-gaiei buruzko xedapen orokorrak**

1. Programa 1. artikulua aipatzen duen aldiari gauzatzeko finantza-hornidura 885.000.000 eurokoa da.
2. Aurrekontu Agintaritzak baimendu behar ditu urteko kredituak, finantza-esparruaren barnean.

*14. artikulua*

**Finantza-gaiei buruzko xedapenak, onuradunei buruzkoak**

1. Programaren onuradunak pertsona fisikoak eta juridikoak izan daitezke.
2. Onuradunen ezaugarrien eta ekintza motaren arabera, Batzordeak erabaki dezake onuradunak salbuestea dena delako ekintza edo lan-egitasmoa gauzatzeko beharrezko prestakuntza eta trebakuntza profesionala duten egiaztatzen. Batzordeak proportzionaltasun-printzipioa errespetatu behar du laguntza ekonomikoaren zehazteko irizpideak ezartzeko, onuradunen ezaugarriak eta adina, ekintza mota eta laguntza ekonomikoaren zehazteko kontuan izanik.
3. Ekintza motaren arabera, laguntza ekonomikoak bitarikoak izan daitezke: diru-laguntzak edo bekak. Halaber, Batzordeak sariak eman diezazkieke Programaren esparruan gauzatzen diren ekintzei eta proiektuei. Ekintza motaren arabera, honenbesteko finantzazioa baimendu daiteke, edo unitateko kostuaren arabera baremoak aplikatzea.
4. Ekintza jakin batzuk egiteko diru-laguntzei buruzko hitzarmenak sinatu behar dira diru-laguntza eman eta bi hilabetean.
5. Europar interes orokorra pizten duen helbururen bat lortu nahi duten erakundeek –halakotzat hartzen dira Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-erregelamendua onartzeko 2002ko ekainaren 25eko Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamendua (EE, Euratom) garatzeko arauari buruzko Batzordearen 2002ko abenduaren 23ko 2342/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom)<sup>1</sup> 162. artikuluan adierazitakoak– diru-laguntzarik ematen badiete Programaren esparruan, diru-laguntzak ez dira murriztuko automatikoki berritzaerakoan, 1605/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 113. artikuluan 2. paragrafoak xedatzen duenari jarraiki.

6. 1605/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 54. artikuluan 2. paragrafoaren c) idatz-zatiak xedatzen duenari jarraiki, Batzordeak ahalmen publikoa eta, bereziki, aurrekontua erabiltzeko ahalmena eman diezazkieke Erabakiaren 8. artikuluan 2. paragrafoak aipatzen dituen egiturei.

7. 2342/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 38. artikuluan 1. paragrafoak xedatzen duenari jarraiki, artikuluan honetako 6. paragrafoak aipatzen duen aukera herrialde parte-hartzaile guztietako egiturei ere eman dakieke.

*15. artikulua*

**Jarraipena eta ebaluazioa**

1. Batzordeak ziurtatu behar du Programaren jarraipena egiten duela aldiari-aldiari, helburuak lortzeko bidean aurrera egiten duela bermatzeko. Jarraipenaren esparruan, 3. paragrafoak aipatzen dituen txostenak eta bestelako jardura espezifikokoak egin behar ditu. Gazteek ere parte hartu behar dute Batzordeak jarraipenaren esparruan egiten dituen galdeketaetan.
2. Batzordeak ziurtatu behar du Programaren ebaluazioa egiten duela aldiari-aldiari; ebaluazioa kanpotik egin behar dute, eta independentea izan behar du.
3. 2010eko ekainaren 30ean beranduen jota, herrialde parte-hartzaileek Programaren aplikazioari buruzko txosten bat aurkeztu behar diote Batzordeari, eta, 2015eko ekainaren 30ean beranduen jota, Programaren eraginari buruzko beste bat.
4. Batzordeak hauek aurkeztu behar dizkie Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari:
  - a) 2011ko martxoaren 31n beranduen jota, ordura arte lortutako emaitzak eta Programa aplikatzearen alderdi kuantitatiboak eta kualitatiboak ebaluatzeko txosten bat.
  - b) 2011ko abenduaren 31n beranduen jota, Programaren jarraipenari buruzko txosten bat.
  - c) 2016ko martxoaren 31n beranduen jota, *ex post* ebaluazio txostena.

*16. artikulua*

**Xedapen iragankorra**

2006ko abenduaren 31 baino lehen 1031/2000/EE Erabakiari eta 790/2004/EE Erabakiari jarraiki hasten diren ekintzak erabakiek xedatzen dutenarekin bat kudeatuko dira burutu artean.

Beharrezkoa bada, kredituak txertatu ahal izango dira aurrekontuan 2013 ondoren, laguntza teknikitik eta administratibotik ondorioztatzen diren gastuak ordaindu eta 2013ko abenduaren 31rako burutzen ez diren ekintzak kudeatzeko. 1031/2000/EE Erabakiaren 8. artikulua aipatzen duen komitearen ordez, erabaki honen 9. artikulua aipatzen duena arituko da.

<sup>1</sup> L 357 EO, 2002/12/31koa, 1. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1605/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 18. artikulua xedatzen duenari jarraiki, Programaren esku jarriko dira 1031/2000/EE Erabakiaren eta 790/2004/EE Erabakiaren arabera ordaindu behar ez eta ordaindu egiten diren zenbatekoak berriz ordaintzetik datozen esleitutako diru-sarrerei dagozkien kredituak.

*17. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Erabakia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitun egunera sartuko da indarrean.

Erabakia 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharko da.

Estrasburgon eginga, 2006ko azaroaren 15ean.

*Europako Parlamentuaren*  
*izenean*  
*Presidentea,*  
J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren*  
*izenean*  
*Presidentea,*  
P. LEHTOMÄKI